

Orain dela hiru hilabete Euskal Herrian izan naiz. Kanpotik gabiltzanok ez dugu honelakorik goizero egiteko aukerarik idorrotzen. Gutxi asko, beti bizi gera Herri-tik urrun. Bestelakorik nahi dela ere, ez baita erreza ehundaka kilometro handikaldetik bizi diren zoritxar eta zorionak ongi sumatea.

Ba dire bospasei urte gure idazleekin hartueman haundirik gabe egon naizela. Agian denboraldi luzeegia, azken urteotako urduritasunak eta bizitz-abiadak gogoan baditugu. Honegatik, gure gaurko lantartea ez dut gehiegi ezagutzen; zehaztasun haundirik gabe behintzat. Baina hoimbeste denboran aparte samar bizitzeak ba dauzka alde

detan odol-berotzen baginen ere. Biltzarrak ez ziren jendetsuak izaten, euskaltzaleak ez baitziren gehiegi orduan. Gutxi ginen, baina, hori bai, denok "miau". Norberaren eritzia sakratua baita gure artean, demokrazia zaharraren ondorio adigarritzat.

Gutxi hauek gutxiago ginen oraindik jakitatez. Lanak nola-hala burutzen ziren, mirakulu hutsaren egitez. Aurretik ez zen ponentziarik egiten, nahiz egiten zenean ahalik arinena egiten zen, entzuleak neka ez zitezen edo. Hori gora-behera, biltzar haiek ez ziren berehala amaitzen. Bai zera! Batzarkide bakoitzak beste ponentzia erdi bat sortzen baitzuen bapatean. Harrigarria, ba, gure etorria!!



BATASUNA... baina nondik eta nola?

onak ere. Esate baterako, etxe barnean dabiltenak baino hobekiago nabaitu ditzake aldakuntzak kanpotik datorrenak.

NON GEUNDEN?

1964-ean egon nintzen azkeneko aldiz euskal biltzar batean. Ba dakizue euskerari buruzko bilera esan nahi dudana, zoritxarrez biltzar horien estudio-gai bakarra euskera izan ohi da. Beraz, nik ezagutu nituen biltzar-giroak 1958-tik 1964-erainokoak dire bakarrik. Ta garai haretan nola zihozten gure gauzak?

Jende-multzotxo kaxkar bat bildu ohi zen. Beti berak edo hor nonbait. Batetik bestera ez zen alde nabarmenik izaten. Gehienak adiskide onak ginen, noiz-behinka eztabai-

NON GAUDE?

Euskal arazoetan ez naiz deus baikorra, optimista, izan sekula, baina Euskal Herriko gora beherak herbestetik jarraituaz, askotan baikorra izan behar nukela pentsatu dut. Jaso ditudan albisteak aldizkarien bitartez heldu zaizkit, "Zeruko Argia" zehar batez ere. Dirudienez, argitalpen hauek ez dute denaren berri juxturik ematen. Hemen-dik, Barcelona-tik, etorkizun esperantzatsua sentitu dut sarritan. Konturatu gabe, azkenean ditugun asmo ederren berri jakiteak izan ditekian, baina oraindik ez den, mundu berri batera eramaten zaitu.

Urte hauetan izen berri aunitz ikusten nituen gure errebista ta asterokoetan. Hori, noski, esperantza bat da. Orain hamar urte baino gazteri langileagoa daukagu gaur euskal lanetan. Horretan ezin uka irabazle geranik. Orain hamar-hamahiru urte ez zen

erreza gertatuko "Z. Argia"-ren antzeko asteroko bat, lankide estasiak ito egingo baitzen.

Garai bateko lan-taldea zabaldu egin da beraz euskal lanetan. Kalitatean berdin irabazi ote dugu? Hau ere jakin behar litzake, ugaritasunak ez baitakar beste gabe hobeagotasunik.

ITXAROPENA NONDIK?

Aspalditxotik agertu da gure artean unibersitario-giro baten beharra, behar gorria. Izan ere, gure akatsetan okerrenetako bat unibersitariotasun-eza izan da. Zer esan nahi duen horrek? Ahalegin nadin agertzen.

Euskerak, beste edozein hizkuntzak bezelaxe, jakintsuak behar ditu. Egin dezagun, esate baterako, katalanari batasuna eman behar zaiola. Eta horretarako biltzar berri bat egin behar dela. Nortzuk joango lirake gaur honelako bilera batera? Lehenen-lehenen ponentziadunak. Ta zein jendaje izango litzake hau? Dudarik gabe, hizkuntzaren estudiogai bakoitzetan bereziki ikasiak. Gainerako batzarkide entzuleak ezer gutitarako lirake. Entzuleok, eta beren artean idazle gehienak ere, galderagile izango lirake.

Gure artean hementxe hasten dire ezbeharrak, Gizon ikasi horiek falta zaizkigu. Askotan ez dakigu hizkuntzarik; gehienetan, dakigunean ere, ez dugu ezagutzen, norberaren hizkuntzatxoa ez bada. Hizkuntza ezagutzeko ez da aski mintzatzen jakitea, ezta idazten jakitea ere. Bai zera!

Edozein jakintza-ataletan **osotasun** bat behar da. Hori gabe ez da jakintzarik. Izadiaren atalak osotasunean bizi dira. Itsasgertuko ibai bare-zabalak ezin ditezke konpreni, mendi-gora bizi izan duten ur bizigeldiezina ezagutzen ez badugu. Handik dator etorri ere ibaia. Zer dakigu guk, izan ere, erreka bare horretzagur ur geldi horietako arrainak bakarrik ezagutzen baditugu? Ta goiko basoetan ur-gora saltoka doazen amorrainak? Horiek ere erreka luzearen barnea dira, haren betiko "egia". Ez ahal duzue ezagutzen gure Oria zaharra?, ta Urumea

kirastia? Gure asabek ez lituzkete ezagutuko gaur. Aparra zuri, urak beltz.

Horra: izadiko gauzak eta gizonak, han-hemengotasun bat dute, ez dire nonahikoak, hemengoak ala hangoak dire, nonbaitekoak beti. Nongotasun honek, bertakotasunez jatten ditu. Aizkorripeko Oria ez da Tolosakoa, ez da Oriokoa. Lurrak eta inguruak egin ditu Oria guzi hoiek. Eta denboraldiak zer? Hemeretzigarren mendeko Oria ere hil zen, gaurkoa beste bat da. Inguruak arizti asko zituen orduan, gaur pinuriak mendimaldetan; gaurko uretan amorraiak ur-gora ihes egin behar biziko badire, garai bateko angelak bidea itxita Orio-n.

Nongotasuna ta garaitasuna, biok elkartu behar, beren luze-zabalean, jakintza jatorrik egingo bada. Ta hizkuntza-jakintzan ere berdin. Hizkuntza ez da **nerre** herrikoa, ez **berrekoa**: biona da, elkarrena, guziona. Hemengo eta horkoa eta hangoa. Euskera, jakintzari dagokionez ezagutuko badugu, euskal herrietako bertakotasun bakoitzean aztertu beharko dugu. Baina hau ere ez da aski.

Zergatik ote litzake **gaurko** euskera, onena, egokiena? Kondaira, errespetagarri ta beharrezkoa da. Bizi izan diren euskerramodu guziek ere aztertu beharrekoak ditugu. Leizarraga, Axular, Agirre, Orixe, tab. gureak dire, aztertu beharrekoak horiek ere.

Lan hau nola egin liteken? Lehenenik metodo-bide jakinak ditu jakintza bakoitzak, eta Linguistika eta Filologiak ere bai. Metodo-bide horiek ikasi beharko ditugu, euskera zientziaren aldetik, eta honi dagokionez, aztertu ta ezagutu nahi bada.

Lana zabalegia da, bakarka egin dezagun. Lan-taldek behar ditugu, buru argi baten menpean elkarturik ahalegin ditezten. Baina langile hauek, dakidanez, ez dire oraindik jaio. Euskal Herrian dauzkagun Unibersidadeak ez dizkigute gizon hauek eman. Nor ote da pekatari? Unibersidadeak ala geu? Guri falta zaizkigunak betikoak dire: metodo-bidea lanerako, gizon-talde prestatuak horretarako. Zerbait aurreratu da azken bost urteetan, baiña lehengo hutsuneak eta akatsak oraindik ere pekatu zaharretara garamazkite. Euskaltzaleak ba ditugu, hizkuntzalaririk ez. Hobeki: Euskal Hizkuntza-Institutorako buruzagia bakarrik dadukagu, Luis Mitxelena. Baina lankiderik ez du.